

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 3ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 667/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea Gasteiz de Vigilancia SLUri esleitzea Aldundiaren hainbat eraikinen zaintza eta segurtasuna, 1.890000 euroan, BEZa barne, bi urteko guzatze epearekin.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 668/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea kanpoko tokiko argiteria sektorean ekintzak egiteko diru laguntzen zazpigarren esleipena, zeinaren deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2018 Foru Dekretuaren bidez egin baitzen eta zeinak xede baitzuen Arabako toki erakundeen gastu arrunta eta karbono dioxido isurketak murriztea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 669/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea kanpoko tokiko argiteria sektorean ekintzak egiteko diru laguntzen zortzigarren esleipena, zeinaren deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2018 Foru Dekretuaren bidez egin baitzen eta zeinak xede baitzuen Arabako toki erakundeen gastu arrunta eta karbono dioxido isurketak murriztea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 670/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea deposituak PRELOAD teknologiarekin berreraikitzeke diru laguntzen bigarren esleipena, zeinaren deialdia Kontseiluaren irailaren 4ko 44/2018 Foru Dekretuak egin zuen eta zeina Arabako lurralde historikoan goi sareko zerbitzuak ematen dituzten erakundeentzat zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 671/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 4ko 43/2018 Dekretuaren bidez deitutako dirulaguntzen lehenengo esleipena, aurreikusi ezin diren egoeretan lurralde historiko honetako toki erakundeek finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 672/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onespena ematea 2019ko ekitaldiko "Álava Innova" laguntza lerroaren deialdiari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 673/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onespena ematea 2019ko ekitaldiko "Emprender en Álava" laguntza lerroaren deialdiari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 674/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea maiatzaren 29ko 263/2018 Erabakiaren bidez deitutako InterKOOP 2018-Elkarteak diru-laguntza lerroa ebaztea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 675/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea maiatzaren 29ko 263/2018 Erabakiaren bidez deitutako InterKOOP 2018-Enpresak diru-laguntza lerroa ebaztea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 676/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea Araba Garapen Agentzia SAri ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkeko kapital sozialaren gehikuntzan parte har dezan.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 677/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Behin betiko onestea Iruña Oka udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzuaren eta hiri ondasun higiezinaren balioztapen txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 678/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea aurrekontua aldatzeko hainbat espediente, "Laudion higiezin bat eskuratzea" partida berrirako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 679/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea aurrekontua aldatzeko hainbat espediente, "ETEak nazioartean sustatzea" partidarako, 2018. eta 2019. urteetarako, ebazteko Alava Interkoop diru laguntza lerroaren 2018ko eta 2019ko deialdiak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 680/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea aurrekontua aldatzeko hainbat espediente "Ardoaren Bidearen Hitzarmena. Enoturismoko Biltzarra" partidarako, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak hala eskatuta, 2019 Enoturismoko Nazioarteko Biltzarra (IWINTEC) egiteko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 681/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea 159/2018 kreditu transferentziaren espedientea, 54.839,69 eurokoa, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak hala eskatuta, "Kreditu globalerako".

Foru Gobernu Kontseiluaren 682/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea Jesús Apellániz López margolariaren "Ikuspegia Berrostegetatik" koadroa dohaintzan ematea Arabako Arte Ederren Museoari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 683/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea onartzea ONCE Fundazioak Aldundi honi doan lagatzea Gasteizko Puerto Rico kaleko 6.enean duen lokala, ezgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentro bat jartzeko.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 684/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea aldatzea eta luzatzea Espejoko adineko pertsonentzako etxebizitza komunitarioa kudeatzeko Gaubeako Udalarekin izenpetutako hitzarmena.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 685/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea interesdunak abuztuaren 3ko 442/2018 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa. Erabaki horren bidez ebatzi zen 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Planaren esparruan nekazaritza ustiatzietan inbertsioak egiteko laguntza deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 686/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea interesdunak abuztuaren 3ko 442/2018 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa. Erabaki horren bidez ebatzi zen 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Planaren esparruan nekazaritza ustiatzietan inbertsioak egiteko laguntza deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 687/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea interesdunak abuztuaren 3ko 442/2018 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa. Erabaki horren bidez ebatzi zen 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Planaren esparruan nekazaritza ustiatzietan inbertsioak egiteko laguntza deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 688/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea Gasteiz On elkarteari zuzeneko laguntza bat ematea, Ardoaraba 2018 azoka antolatzeke.

Foru Gobernu Kontseiluaren 689/2018 Erabakia. Onestea HAZI Fundazioari eskatzea hainbat informatika lan egin ditzala, modu iraunkorrean, Aldundi honen informazio sistemetan.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 690/2018 Erabakia, abenduaren 3koa. Behin betiko onestea “Zubilarra eta Fontechan depositu berria egitea eta hornidurako goi sarea berritzea” proiektua eta lanak prozedura ireki bidez kontratatzea, 488.113,12 eurogatik, BEZa barne, eta 5 hilabeteko gauzatze epearekin.